

# Mendizabal (Meizal)



## INTSAUSTI ETXEBERRIA familia

**M**EIZAL baserria Egileor auzoko baserria da. Bere inguruko baso eta zelaien izenen artean dauzkagu: *Egizu, Atariko zelaia, Beheko soroa, Eutera...*

Baserritik kalerainoko bidea 1960 inguruan egin-dakoa omen da. Orduan eskarbilarekin egin zen. 1980ko hamarkadan porlanez. Oinez herriko plaza-tik ordu laudenera dago eta lantegira, Fabrika Handira, bizikletan joaten omen zen aita.

Etxejabe dira *Meizal* baserriko Intsausti familia-koak, 1970az geroztik. Eta 1980an berritu zuten baserria osorik: ukuilua eta etxea.

1959an ezkondu ziren Maria Irastortza *Meizalgo* alaba eta Markox Intsausti, *Ibargun* baserrikoa. Zaldibin ezkondu, otordua *Estanko* tabernan egin eta handik Zaragozara joan ziren ezkontza bidaiari. Ezkondu zirenean baserrian hiru anaia-arreba bizi ziren. Markoxek, 1946az geroztik Fabrika Handian egin zuen lan baina baserrian bazituzten hamar behi.

Hiru seme-alaba izan zituzten: Karmen, Joxetxo eta Tere. Joxetxo, semea, baserrira ezkondu zen, 1990ean, *Ibargun* baserriko Arantxa Etxeberriarekin. Ama etxean bizi zen artean eta etxeko beste alaba bat ere bai. Saturdin ezkondu eta Larraitzen egin zuten otordua. Bi seme-alaba izan dituzte: Ainhoa eta Aitor. Baserriari eusten diote, nahiz eta emazteak kanpoan ere lan egiten duen. Gaur egun hogeita bost bat buru dituzte. Txekorrak hazi eta esnea saltzen dute. Baratzean ere aritzen dira, bertako babarruna erein eta salduz.



## Baserriaren arrastoa idatzietan

Auzo horretako *Goskindi* ez bezala, MENDIZABAL agertzen da 1783-12-17an, Francisco Antonio de Echaveren aurrean, Enerio eta Aralarko sailen erabileraz bitartekari bati emandako botere emaileen artean. Hiru ordezkariaren izenak agertzen dira dokumentu hartan, eta beraz, gerta daiteke garai hartan hiru familia bizi izatea etxe hartan. Gaur egun bi etxebizitza dira.

Informazio emalea: Joxetxo Intsausti Irastortza






INTSAUSTI IRASTORTZA familia  
Maria Irastortza eta Markox Intsausti.



Tere, Karmen eta Joxetxo (seme-alabak)



INTSAUSTI ETXEBERRIA familia  
Aitor, Ainhoa, Joxetxo eta Arantxa.